

# MENDE BATEN BUKAERA BIKAINA

C.D. Hernaniko Pilota Saila

## Herri arteko txapelketa

2000. uztailaren 9ko igande hartan hernaniar asko bideratu zen Donostiara, Atano III.a pilotalekura. Pilotazale zintzo gehiena bertan zen eta beste asko pilota bera baino herriaren izenagatik inguratu zen. Ez dugu uste jokoan zer zegoen ondo zekitenik eta ez dakigu adierazteko gauza izango garen ere. Baina hau normala dirudigu, Hernanik ez baitu, Azkoitia batek bezala, Herriartekoaren goi-goien ibiltzeko ohiturarik.

Herriarteko Txapelketa 1.968an jarri zuten martxan eta Euskadin Gipuzkoa izan zen aintzindari. Herri batzuk gutxitan eta beste batzuk ia beti ibili dira, baina irabazi oso gutxik irabazi dute. Irabazi dutenei galdetu behar zaie zer den eta ezingo dute adierazi, ez

behintzat hitzekin. Baina pilotari batek etxean halako txapela bat baldin badauka, beste batzuk ere izango ditu eta handiagoak bat baino gehiago, baina txikiena ez du txikiena bezala ikusiko

Bada Tolosako pilotari bat partidu bat bera ere irabazi gabe Herriarteko finalera iritsi zena eta finalean ere galdu egin zuena. Tolosa urte hartan bigarren gelditu zen. Urteak pasata pilotari hori palista gisa profesioaletan ibili zen, baina kontatzekotan Herriartekoa kontatzen du.

Gipuzkoako Federazioan noiz edo noiz hitzegiten denean, arrazoi bakarrarekin gelditzen omen dira, alegia, bertan herriaren izena dabilela.



Herri arteko txapelketako txapeldunak:

Zutik ezkerretik eskuinera: Rufino Rekalde, Mertxe Etxeberria (Hernaniko alkatea) Felix Zabala, Arkaitz Santa Kruz, Garikoitz Erroizenea, Ioritz San Sebastian.

Makurtuta: Unai Alvarez, Josu Oiaga, Mikel Ruiz de Galarreta, Jon Zabala, Jagoba Yubero.



Txapelketa asko antolatzen da urte batean, bai ofiziala, bai pribatua, eta sari handi askoak ematen dira, batzuk urrutitik ikusten direnak eta oso garestiak. Jakina, bakoitzak bere txapelketa onena izatea nahi du, baina inork ez du berdindu txapela txiki horren balioa. Eta ez du berdinduko. Izan ere, herriaren izena ez da telebista handi bat edo metro erdiko trofeo batekin berdintzen. Zuk, irakurle maite horrek, zerekin berdinduko zenuke?. Ikusi edota ikutu ezin diren gauzak, adibidez, maitasuna, dira balioetsuak. Eta horrelakoxea da herriaren izena eta herriak adierazten diguna. Horrexegatik da handia txapel txiki hori.

Gure pilotariak aurreko urteko finala galduta itzuli ziren, baina ondo ikasita. Kokilak ez du irabazten eta gureak irabaztera joan ziren, azkoitiarrak baino hobeak zirela sinistuta. Horrelaxe ibili ziren txapelketa guztian Unai Alvarez, Jagoba Yubero eta Ioritz San Sebastain kadeteetan, Jon Zabala, Garikoitz Erroizenea eta Mikel Ruiz de Galarreta jubeniletan eta Josu Oiaga, Felix Zabala eta Harkaitz Santa Kruz nagusietan. Atzean utzitako herriak hauek dira: Usurbil, Lasarte-Oria, Soraluze eta Azkoitia.

Denetan aipamen berezia merezi duena Felix Zabala da. Neurri handi batean 45 urteko "zahar" honi esker ekarri dira txapelak. Gaztea eskutako minez eta txorkatila bihurrituta ibili zenean, berak egin baitzuen gaztearen lana. Bi ez beste partidua guztiak jokatu zituen, gainera botilero lana eginda. Orain jakin nahi genukeena hauxe da: ba ote da Gipuzkoan 45 urterekin txapela irabazi duena?. Federazioan galdetu beharko dugu, han agian jakingo dute eta.



Hernaniko Kirok elkarteko pilotariak 1999-2000. denboraldian

## Frontoia

Elkarteka egiten den Gipuzkoako Txapelketan Jagoba Yubero eskuz banakako jubeniletan bigarren gelditu zen. Eli Lasa (Aia) eta Amaia Martinez bikoteak bigarren egin zuen nagusi mailako paletan. Jubeniletan beste hainbeste egin zuten Patrizia Hoz eta Ana Bermejo (Altza) bikoteak. Erremontean Xabier Aguilar eta Jon Juaristi (Zarautz) bikotea bigarren gelditu zen. Jesus Mari Ubarretxena eta Manu Galarza bikoteak 2. mailako txapelak jantzi zituzten eta aurten 1. mailan dabilta.

Gainera Jon Zabalak Abadiñon txapela irabazi eta Añorgan eta Burlatan bigarren suertatu zen. Garikoitz Erroizenea Getarin sub-23koan txapela atera zuen, Usurbilen bezalaxe, Antiguan eta Lezon bigarren suertatuz. Josu Oiagak Egian bigarren egin zuen. Udaberri Txapelketan, berriz, Unai Alvarez eta Ioritz San Sebastian bigarren gelditu ziren, paletan Garbiñe Tijero eta Maribel Camacho bezalaxe.

## Trinketea

Ipparralden pilotari gehienak trinketean aritzen dira, Hegoalden inor gutxi. Hala ere, hernaniarrak zertxobait ibiltzen dira.

Hau dela eta, Gipuzkoako Txapelketan eskuz binakakoan Estebe Gaskon eta Jesus Mari Aizpurua bigarren gelditu ziren, Euskadikoan bezalaxe. Bietan Billabonakoak hartu zieten aurrea. Baina neskei ez.



Trinketeko Euskal ligako finalean parte hartu duten hernaniar guztiak:

*mutilak eskuinetik hasita:*

*zutik 1.a Jesus Mari Aizpurua, makurtuta 2.a Estebe Gaskon.*

*neskak txapelarekin ezkerretik eskuinera:*

*Garbiñe Tijero, Goiatz Manzisidor.*





Garbiñe Tijero sake bat ateratzen Euskal ligako trinketeko finalean.

Garbiñe Tijero eta Goiatz Manzisidorrek Euskadiko txapelak Hernanira ekarri zituzten eta.

Baionan Munduko Kopa jokatu zen eta Goiatz Manzisidor bertan ibili zen. Etxean ditu txapela eta urrezko domina.

### Denetatik zerbait

Hauxe da Hernanik Herriarteko Txapelketan azken urteotan egindako bidea: 1.998an 4. postua, 1.999an txapeldunordea eta 2.000n txapelduna

Soraluzen aurkako kanporaketa Tilosetako "Ezker Pareta"n jokatu zen eta urte asko zen halako giroa ikusten ez zela. Semifinala, jende asko, han galdutakoa hemen gaingitu beharra. Giro beroa, Hernanin "Luistarren" garaian ematen zena bezalakoa.

Josu Oñagak uztailaren 29an egin zuen bere debut profesionala Besagainekin. Ez dugu uste bere maila eman duenik, baina Gazteizen ikasten ari denez, badakigu ez duela behar bezala entrenatzen. Ikasketak bukatutakoan beste Josu bat ikusiko dugu.

Iñaki Esnal eta Juan Ramon Mendia beasaindarrak 2. maila profesionalerako txapela irabazi zuten eta banakakoan Iñaki Esnal semifinaletara iritsi zen.

Esnal eta Oñagaren aurretik Hernanik ez du izan eskuko profesionalik.

2.000n 11 jaialdi profesional eman dira Besagaingo pilotariek.

San Joanetako azken egunean, ekainaren 27an, kiroldegiko frontoia leporaino bete zen ASPEko pilotaririk onenak ikusteko.

Afizionatutan erremontista bakarra dugu, lehen gehiago izan dugun arren. Gehiago ere etorriko dira.

11 urte dira Gipuzkoako Federazioa nesken txapelketak antolatzen hasi zela eta Hernani izan da urteero nesken lizentzia gehien izan duena. Eta hernanikoa izan zen Federazioko Zuzendaritzan orain arte ibilitako neska bakarra.

Gipuzkoako Federazioa 105 Elkartek osatzen dute eta pilotariak, asko ala gutxi, dituztenak 75 dira eta Hernani da Gipuzkoako Txapelketetan bikote gehien aurkeztzen duena.

Euskadiko Federazioak egindako sailkapenean Hernani 8. postuan azaltzen da, aurretik gipuzkoar bakarra, Billabonako Behar Zana, azaltzen delarik, baina pentsatu behar da Billabonakoek, Zubietakoekin batera, badituztela Gipuzkoan beste inork ez dituen joko-motak, errebotea eta joko garbia, alegia, eta sailkapenerako horiek ere kontutan hartzen direla.

Pilota zuzentzen duen Hernaniko taldea lanean hasi zenean orain dela 5 urte, Herriarteko Txapelketan atera ziren pilotaritatik nagusia mailakoak bakarrik ziren Hernanin ikasiak. Orain kadete eta jubenilak dira Hernanin ikasiak.



Ezpeletaren (txapelduna) omenaldia 2000. Irailaren 30ean, Oñaga eta Esnal pilotari profesionalak elkarren aurka jokatu zuten.

luz irailan hasi zen denboraldian 80 mutil hasi ziren Hernaniko eskolan.

Langile fin eta gizon onik baldin bada Hernanin, **Miel Ezpeleta** da. Hernaniko eskolaren ardatz bat dela eta gure eskerrona azaltzeko omenaldia egin zitzaion Herriartekoaren arrakasta aprobetxatuz.

Bazkide kopurua urtetik urtera handitzen ari da. Gipuzkoan ez dago hainbeste bazkide duen Elkarterik. Espero dezagun lanerako gogoia eta borondatea orain arte bezalakoak izatea.